Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

287

2965/2010 EBAZPENA, abenduaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko Ana Bustinduy Bascaran andrea izendatu eta zerbitzu berezietan egongo dela deklaratzen duena.

Aztertu dugu Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko zuzendari mediko lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urriaren 6ko 2658/2010 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2010eko azaroaren 11ko EHAAn (217. zk.) argitaratu zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Ana Bustinduy Bascaran andrea deialdiko lanposturako aproposa da, eta ikusi da bertan jarduteko prestakuntza egokia duela.

Ana Bustinduy Bascaran andrea Osakidetzako langile finkoa da eta Erakunde Zentraleko KSUko medikuaren postu funtzionalaren 15839 plazaren jabea da, eta Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko hautatu dute.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Horiek guztiak kontuan hartuta, zuzendaritza nagusi honek

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Ana Bustinduy Bascaran andrea Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko zuzendari mediko izendatzea.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

287

RESOLUCIÓN 2965/2010, de 17 de diciembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a D.ª Ana Bustinduy Bascaran para desempeñar el puesto de Directora Médico de Comarca Gipuzkoa Este, y se declara en situación de servicios especiales.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Directora Médico de Comarca Gipuzkoa Este, publicada en el BOPV n.º 217, de 11 de noviembre de 2010, mediante Resolución 2658/2010, de 6 de octubre, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por la única aspirante al desempeño del puesto que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vital».

Considerando que, a la vista de la documentación presentada, D.ª Ana Bustinduy Bascaran se adecúa al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

Considerando que D.ª Ana Bustinduy Bascaran, personal fijo de Osakidetza-Servicio vasco de salud, titular de la plaza n.º de orden 15839 del puesto funcional de Médico de UGS en Organización Central, ha sido designada para desempeñar el puesto de Directora Médico de Comarca Gipuzkoa Este.

Considerando que, a tenor de lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, deberá ser declarado de oficio en situación de servicios especiales el personal fijo de Osakidetza-Servicio vasco de salud cuando sea designado para ocupar cargo directivo en este Ente Público.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección General,

RESUELVE:

Primero.– Nombrar a D.ª Ana Bustinduy Bascaran Directora Médico de Comarca Gipuzkoa Este.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Izendapenak ondorioak dituen egunetik aurrera, Ana Bustinduy Bascaran andrea zerbitzu berezietan egongo dela deklaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 17a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

Segundo.– El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde su notificación a la interesada.

Tercero.– Declarar en situación de servicios especiales a D.ª Ana Bustinduy Bascaran desde la fecha de efectos de su nombramiento.

Cuarto.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2010.

El Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.